



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2017-05-29

BILERA ZENBAKIA: 40

ORDUA ETA LEKUA: 19:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Lau neska eta mutil bat

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA

2. ETXEKO LANAK

3. LANGABEZIA

4. ERREPASOA:

- Errefuxiatuen eguna (ekainak 17)
- Ekainak 14ean batzorde guztiak plazara

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA

Ez dago ekarpenik eta onartuta geratzen da.

2. ETXEKO LANAK

1. LANGABETUEI ZUZENDUTAKO EKINTZAK ANTOLATU. KZ Gunetik bi ikastaro antolatu dira; Bat langabetuei zuzendua eta bestea 3. Adinekoei zuzenduta. Langabetuenean ez da taldea sortzerik lortu, ez du inork izena eman. Aurrerago beharra izanez gero berriz antolatzeko aukera dago. Adinekoei zuzendutako ikastaroak aldiz arrakasta izan zuen, 2 talde sortu dira.
2. GOIEKIKO GENERO INDARKERIAREN INGURUKO INFORMAZIOA LORTU. Aurreragokorako utzi da.
3. HARRERA EGUNA ANTOLATU



- Zahirak erroldatu berri direnei telefonoz gonbidapena luzatu
- Eskola, mintzalaguna, guraso elkarte, bake epailea eta alkatea azalduko dira. Ingeleseko itzultzailea ere egongo da.
- Egunean: 30 minututan aurkezpen txikia egin, liburuxka eman eta herritik buelta. Amaiera hotzegi ez geratzeko, ondoren zerbait hartzen geratzeko proposamena luzatzen da. Egunean erabakiko da.

4. ERREFUXIATUEI ZUZENDUTAKO EKIMENA ANTOLATU: Ekainak 17rako lanak lotuta daude. Laguntzeko jendea ere prest dago, badauden arren hutsune batzu.... Orokorrean dena prest. Ekaineko bileran egingo da balorazioa.

5. ELIKAGAI BANAKETAN ALDAKETAK. Martxan dago local berria egokitzeko "obra" txikia. Auzolanean errematatu eta martxan jarztea aurreikusten da lehen bait lehen. Iraial edo urria alderako prest izatea espero da.

3. LANGABEZIA

- Itsasondon %6,5eko langabezi tasa (altua) dago. Lanbidetik ateratako informazioa da. Goiekiko datuetan tasa hori %5era jeisten da. 21 pertsona 12 gizon eta 9 emakume. Gehiengoa 2.go hezkuntza ikasketarik gabe.

- GOIEKI-t-ik Aldundira ikerketa bat egitea eskatu dute, gehienbat langabetuen profile aztertze eta dirudienez emakumeak gehiengoa dira. Honi lotuta, helburu / irtenbide desberdinak planteatu nahi dira formakuntza-lana programa baten bitartez.

- Ekainak 15 autoenplegura zuzendutako ekimena.

- JANZKILAN formakuntza. Josten erakitxi duen elkarte. Inguruko arropa



dendetako lanak egin ahal izateko.

- Goierri eskolan PEOI perfilaren formakuntza. 3 urteko formakuntza, praktikekin konbinatuz. Amaieran 6 hilabeteko kontratua bermatuta.
- Goierri eskola eta Lanbideren eskutik orientzaio ikastaroak bultzatuko dira.

4. ERREPASOA:

- Errefuxiatuen eguna (ekainak 17). Dena martxan dago, azken orduko pare bat gauza falta dira vaina gehiena lotuta.
- Ekainak 14ean batzorde guztiak plazara. Herri bizitzak antolatuta batzorde guztien topaketa eguna egingo da. Bakoitzak bere batzordearen berri eman eta guztion hartean informazioa elkarbanatzeko. Gure taldetik Jabi bakarrik egongo da.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Kirola sustatzeko diru laguntzen eskaera. Gimnasioaren antolaketa	Ekainak 26	JABI
GOIEKIko genero indarkeriaren inguruko informazioa lortu	Ekainak 26	ERKUDEN
Elikagai Banaketan aldaketak	Urtean Zehar	ERKUDEN

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, 2017ko Ekainaren 26an egingo dugu, astelehena arratsaldeko 7tan Udaletxean.



Gai ordena:

- Aurreko aktaren onarpena
- Etxeko lanen errepassoa
- Harrea Egunaren balorazioa
- Kirola sustatzeko diru laguntzen eskaera. Gimnasioaren antolaketa.
- Ekainak 17ko ERREFUXIATU EGUNAREN balorazio azkarra.